

Kale egiten ez duena, Huheziko multimedialako neska-koadrila

2009/05/06

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluan gertatzen den guztiaren berri izateko, aparteko lan-taldea daukagu **multimedia departamenduan**, Huhezin. Tresneria guztia prest izan, saioak grabatu, grabazioak disko gogorretara ekarri eta DVDetara pasatu, Berrian eta hemen bertan jartzen ditugun bideo-zatiak ere beraiek editatzen dituzte. Hori guztia astero-astero egin eta, gainera, irribarrea beti aldean.

Nortzuk dira, baina, harribitxi horiek?

Uxue Urtzelai eta **Maialen Kaltzakorta** Irakasletza ikasten ari dira, 3. mailan, Haur Hezkuntza espezialitatean. **Idurre Lazkano**, Ikus-entzunezko Komunikazioa ari da ikasten, 3. mailan. Taldearen buru, **Amaia Pavon**, Huheziko lankidea: 25 urte, arrasatearra, Leioan Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasitakoa. (Argazkian, ezkerretik eskuinera: Uxue Urtzelai, Maialen Kaltzakorta, Amaia Pavon eta Idurre Lazkano)

Zergatik atera nahi dugun albiste hau? Bada, aurrez aurre izanda ere sarri, askotan esaten ez dizuegun hori, gure webean argi eta garbi esateko: **eskerrik asko!**

